Berdeguneen garbiketa eta mantentze falta horren ondorioz, karraskariak ugaritu egin dira auzoko leku jakin batzuetan, eta inguruko establezimenduren batean ere sartu dira. Bizilagunek adierazi dute eman diotela Udalarari arazo horren berri, eta hark ez duela horren ardurarik hartu, argudiatuz bide publikoan ikusitako karraskariak etxeetako lorategi-eremuetatik datozela eta, beraz, bizilagunen erkidegoek konpondu beharreko arazoa dela hori. Bestalde, ohikoa da plastikoa eta papera birziklatzeko edukiontzia gainezka egotea. Hori dela eta, bizilagunek lurrian utzi behar izaten dituzte birziklatzeko poltsak, eta horrek ere errazten du karraskariak egotea. Zuhaitzen kasuan, adierazi dute asko ez dituztela urteetan inausi, eta bakarren batek birziklatzeko edukiontzien eremu baten gainera erortzeaz dauzkala adarrak. Beraz, arrisku-egoera bat sortzen ari da.

La falta de limpieza y mantenimiento de las zonas verdes ha originado la proliferación de roedores en ciertos puntos concretos del barrio, roedores que han llegado a entrar en algún establecimiento de la zona. Los vecinos y vecinas refieren a que ya han comunicado este problema al ayuntamiento y que éste se ha desentendido alegando que los roedores que han sido vistos en la vía pública proceden de zonas de jardín pertenecientes a las casas y, por tanto, que es un problema que debe ser resuelto por las comunidades de vecinos. Por otro lado, es habitual que los contenedores de reciclaje de plástico y papel se encuentren llenos hasta el tope, lo que obliga a vecinos y vecinas a tener que depositar sus bolsas de reciclaje en el suelo, hecho que además favorece también a la presencia de roedores. En el caso de los árboles, indican que muchos no han sido podados en años, y alguno en concreto tiene las ramas a punto de desprenderse sobre una zona de contenedores de reciclaje, lo que está dando lugar a una situación de riesgo.

Alderdi horiek guztiak direla eta, denbora luzea da auzo horretako bizilagunak udal-administrazioarekin haserre eta abandonatuta sentitzen direla.

Todos estos aspectos están generando una sensación ya prolongada en los vecinos y vecinas de este barrio de malestar y abandono por parte de la administración municipal.

Hori dela eta, hauxe da gure

Por todo ello presentamos la siguiente:

INTERPELAZIOA

INTERPELACIÓN

1. Udal-gobernuak zergatik ez du handitzen Larratxo inguruko eta, oro har, Ekialdeko Barrutiko auzoetako mantentze-lanen maiztasuna? Udal-gobernuak pentsatu al du baliabide teknikoak eta giza-baliabideak zabaltzea Ekialdeko Barrutiko eremu horiek

1. ¿Por qué motivo el gobierno municipal no incrementa la frecuencia del mantenimiento en la zona de Larratxo y, en general, en los barrios del Distrito Este? ¿Ha considerado el gobierno municipal ampliar los medios técnicos y humanos para el mantenimiento de estas zonas del Distrito



mantentzeko?

2. Udal-gobernuak zergatik ez du konpondu Larratxo auzoko karraskarien arazoa?

3. Noiz inausi dira azken aldiz Larratxoko berdeguneak eta zuhaitzak? Zenbatean behin egiten dira inausketa horiek?

Donostia, 2022ko apirilaren 1a

Sinatua: Haizea Garay Gallastegui
Elkarrekin Donostia udal-taldeko zinegotzia”

Marisol Garmendiak eta Haizea Garayek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

19.- Interpelazioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, ospitaleetarako sarbidea mantentzeari buruz.

Haizea Garayek irakurritzat eman du interpelazio hau:

“Elkarrekin Donostia udal-taldeko zinegotzi Haizea Garay Gallastegui, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egiten dio Hiri Mantentzeko zinegotzi ordezkari Miguel Angel Diezi, hiriko ospitale-eremura doan errepideko zoladuraren mantentze-egoerari buruz, GUNE PUBLIKOEN BATZORDEAN (OBRAK ETA HIRI ZERBITZUAK) aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Duela justu urtebete, iragarri zen Begiristain Doktoarearen pasealekuko galtzadan zenbait zati berrituko zirela, bai ospitaleetara igotzeko aldean, bai handik jaistekoan. Zinegotzi ordezkariak iragarri zuen zoladura fresatuko zela, zoruan egiturazko kalteak dituzten guneak konponduko zirela eta errodatze-geruza birjarriko zela. Obra horien kostua 40.000 euro inguru zen, eta 7 egunean egitea espero zuen zinegotziak.

Hala ere, Amaratik ospitaleetara sartzeko errepidea hartu ohi duten pertsonak adierazi dute haserre daudela errepide horren asfaltoaren egoera dela-eta. Zehazki, haiek diote asfalto oso egoera txarrean dagoela, batez ere aldapan

Este?

2. ¿Por qué motivo el gobierno municipal no ha dado solución al problema de la presencia de roedores en el barrio de Larratxo?

3. ¿Cuándo ha sido la última vez que se han podado las zonas verdes y los árboles de Larratxo? ¿Con qué frecuencia se realizan estas podas?

Donostia, 1 de abril de 2022

Fdo.: Haizea Garay Gallastegui
Concejala del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia”

Intervienen en este punto las Sras. Garmendia Beloqui y Garay Gallastegui, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

19.- Interpelación, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, sobre el mantenimiento del acceso a hospitales.

La Sra. Garay Gallastegui da por leída la siguiente interpelación:

“Haizea Garay Gallastegui, concejala del Grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al concejal delegado de mantenimiento urbano, Miguel Ángel Díez, para su tratamiento en la COMISIÓN DE ESPACIO PÚBLICO Y SERVICIOS URBANOS, relativa al mantenimiento del estado del pavimento de la carretera de acceso a la zona hospitalaria de la ciudad.

JUSTIFICACIÓN

Hace un año exacto que se anunciaron trabajos de renovación en varios tramos de la calzada de la calle Doctor Begiristain, tanto en la subida como en la bajada de Hospitales. En su día, el concejal delegado anunció que se procedería al fresado del pavimento, a la reparación de las zonas que presentan daños estructurales en el firme y a la reposición de la capa de rodadura. Estas obras costarían unos 40.000 euros y el concejal estimaba que se acometerían en 7 días.

Sin embargo, personas que habitualmente toman la carretera de acceso a Hospitales desde Amara han manifestado malestar por la situación en la que se encuentra el estado del asfalto de esta carretera. Señalan, en concreto, que el asfalto



behera joan eta eskuinaldera, eta, beraz, zoladuran dauden zuloek astindu handiak ematen dizkiotela ibilgailuen esekidurari. Kontuan hartuta errepide horretatik ebakuntza egin berri zaien, osasun-arazoak dituzten edo eriondo dauden pertsonak jaisten direla, zuloek eragindako kolpe horiek are deserosotasun handiagoa eragiten diete osasun-zaintza behar duten bide-erabiltzaile horiei. Era berean, erabiltzaile batzuek adierazi dute ospitaleetatik eta Onkologikotik poliklinikara doan errepidea egoera txarrean dagoela.

Hori dela eta, haxe da gure

INTERPELAZIOA

1. Udal-gobernuak zergatik ez du Donostiako ospitaleekin komunikatzen diren errepideetako zoladura behar bezala mantentzen, bide horiek osasun-zaintza behar duten pertsonak erabiltzen dituztela jakinda?
2. Ba al duzue asmorik galtzada horietan hobekuntza-lanak egiteko? Erantzuna baiezkoa bada, noizko aurreikusten duzue obra horiek hastea?
3. Zer tarte konpondu ziren 2021ean? 2021ean konpondutako tarte horiek al dira orain narriatzen ari direnak?

Donostia, 2022ko apirilaren 1a

Sinatua: Haizea Garay Gallastegui
Elkarrekin Donostia udal-taldeko zinegotzia”

Marisol Garmendiak eta Haizea Garayek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

(11:49an Aitzole Araneta, Zigor Etxeburua eta Kerman Orbeagoz bilerara iritsi dira)

20.- Interpelazioa, Elkarrekin Donostia Taldeak aurkeztua, Añorga Txikiko mugikortasun bertikalari buruzkoa.

Aitzole Aranetak interpelazio hau azaldu du:

“Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramaile

está en muy mal estado, sobre todo el lado derecho de la bajada, de forma que los baches existentes en el pavimento provocan sacudidas de consideración en la amortiguación de los vehículos. Considerando que por esta carretera bajan personas recién operadas, con problemas de salud, o convalecientes, estos golpes producidos por los baches causan una incomodidad aún mayor en aquellos usuarios y usuarias de la vía que requieren de cuidados sanitarios. Igualmente algunas personas usuarias refieren el mal estado de la carretera que va desde Hospitales y el Onkologikoa hasta la Policlínica.

Por todo ello presentamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1. ¿Por qué motivo el gobierno municipal no realiza un mantenimiento adecuado del pavimento de estas carreteras que comunican con la zona Hospitalaria de Donostia, sabiendo que son vías utilizadas por personas que requieren de cuidados sanitarios?
2. ¿Piensa acometer obras de mejora en estas calzadas? En caso afirmativo, ¿para cuándo tienen previsto el inicio de esas obras?
3. ¿Qué tramos fueron reparados en el año 2021? ¿Son estos tramos reparados en el 2021 los mismos que se están deteriorando ahora?

Donostia, 1 de abril de 2022

Fdo.: Haizea Garay Gallastegui
Concejala del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia”

Intervienen en este punto las Sras. Garmendia Beloqui y Garay Gallastegui, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

(La Sra. Araneta Zinkunegi, el Sr. Etxeburua Urbizu y el Sr. Orbeagoz Uribe se incorporan a la sesión a las 11:49 h)

20.- Interpelación, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa a la movilidad vertical en Añorga Txiki.

La Sra. Araneta Zinkunegi expone la siguiente interpelación:

“Aitzole araneta zinkunegi, portavoz del grupo



Aitzole Araneta Zinkunegik, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egiten dio Mugikortasuneko eta Garraioko zinegotzi ordezkari Pilar Aranari, Añorga Txikiko mugikortasun bertikalari buruz, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Duela gutxi, Gobernuak aurrera egin du mugikortasun bertikalarekin lotutako bi gaitan. Alde batetik, otsailaren 22an, Gobernu Batzarrak Jolastokietan igogailu bertikala jartzeko proiektuaren obrak kontratazeko beste espediente bat onetsi zuen. Obra horrek 558.000 euroko lizitazio-aurrekontua du eta egikaritze-epea 8 hilabetekoa da. Bestalde, martxoaren 8an, Gobernu Batzarrak Alaialden hainbat jarduketa egiteko proiektuko 1. jarduketa-eremua gauzatzeko obren kontratazio-espedientea onetsi zuen, eta horren barruan Alaialde auzoan igogailu bat eraikitzea aurreikusten da. Kontratu haren lizitazio-aurrekontua 389.715 euro da, eta egikaritze-epea 6 hilabetekoa da.

Hala ere, jarduketa horiek ez dute errespetatzen Mugikortasun Bertikalaren Plan Zuzentzailean ezarritako ordena. Hain zuzen ere, plan horretan, Donostian mugikortasun bertikala hobetzeko jarduketekiteko hierarkia eta ordena bat ezarri ziren. Horrek nolabaiteko ondoeza eragin du hiriko auzo batzuetan, urteak daramatzatelako era horretako hobekuntzak aldarrikatzen.

Zehazki, Añorga Txikiko auzotarrek urteak daramatzate beren auzorako aurreikusitako obra egin dadila eskatzen, seigarren tokian baitago Mugikortasun Bertikalaren Gida Zuzentzailean zehaztutako jarduketak antolatzen dituen taulan.

INTERPELAZIOA

1. Udal Gobernuak zergatik ez du aurreratu Añorga Txikin aurreikusitako igogailuaren obran? Zer plan eta aurreikuspen ditu Udal Gobernuak obra horri dagokionez?

2. Udal Gobernuak zergatik ari da aurrera egiten Mugikortasun Bertikalaren Plan Zuzentzailean zehaztutako ordena errespetatzen ez duten jarduketetan?

Donostia, 2022ko apirilaren 1a

Sinatua: Aitzole Araneta
Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramailea”

municipal elkarrekin donostia, al amparo del vigente artículo 134 del reglamento orgánico del pleno, presenta la siguiente interpelación dirigida a la concejala delegada de movilidad y transporte, pilar arana, para su tratamiento en la en la comisión de espacio público, obras y servicios urbanos, relativa a la movilidad vertical en Añorga Txiki.

JUSTIFICACIÓN

Recientemente el gobierno ha avanzado en dos temas relacionados con la movilidad vertical. Por un lado, el 22 de febrero la Junta de Gobierno aprobó un nuevo expediente de contratación de las obras correspondientes al proyecto de implantación de ascensor vertical en Jolastokieta, con un presupuesto de licitación de 558.000 euros y un plazo de ejecución de 8 meses. Por otro lado, el 8 de marzo la Junta de Gobierno aprobó el expediente de contratación de las obras de ejecución de la zona de actuación 1 del proyecto de actuaciones varias en Alaialde, con un presupuesto de licitación de 389.715 euros y un plazo de ejecución de 6 meses, que contempla la construcción de un nuevo ascensor que de servicio a la calle Alaialde Auzunea.

Sin embargo, estas actuaciones no respetan el orden establecido en el Plan Director de Movilidad Vertical en el que se estableció una jerarquía y un orden a la hora de acometer las actuaciones de mejora de la movilidad vertical en Donostia. Esto ha causado cierto malestar en algunos barrios de la ciudad que llevan años reivindicando mejoras en este aspecto.

En concreto, las vecinas y vecinos de Añorga Txiki llevan años solicitando que se lleve a cabo la obra prevista para su barrio, que se sitúa en el sexto lugar en la tabla que ordena las actuaciones definidas en el Plan Director de Movilidad Vertical.

INTERPELACIÓN

1. ¿Por qué motivos el Gobierno Municipal no ha avanzado en la obra del ascensor previsto en Añorga Txiki? ¿Cuáles son los planes y previsiones del Gobierno Municipal con respecto a esta obra?

2. ¿Por qué razones el Gobierno Municipal está avanzando en actuaciones que no respetan el orden definido en el Plan Director de Movilidad Vertical?

Donostia, a 1 de Abril de 2022

Fdo.: Aitzole Araneta
Portavoz del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia”



Aitzole Aranetak eta Pilar Aranak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoa grabatu dira.

21.- Interpelazioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Artxipi kaleko bizilagunei hondakinak biltzeko zerbitzua eten izanari buruzkoa.

Zigor Etxeburuak irakurritzat eman du interpelazio hau:

“EH Bildu udal taldeko zinegotzi Zigor Etxeburua Urbizuk, Udaltzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, INTERPELAZIOA egiten dio alkate Eneko Goia Lasori, Artxipi kaleko bizilagunei hondakinak biltzeko zerbitzua eten izanari buruz azalpenak eman ditzan Gune Publikoko Batzordean.

JUSTIFIKAZIOA

Urtarrilean, Altzako Artxipi eta Txurdiñene kaleetako bizilagunek eskaria egin zuten, erregistro bidez, Donostiako Udalak eten egin dielako hondakinak biltzeko zerbitzua. Azaldu dutenez, 2021eko udaberrian eten zieten zerbitzua, baina geroztik bitan kobratu zaie eman gabeko zerbitzuarengatik.

Bizilagunek eskatzen dute bidegabeki kobratutako diru horiek itzultzea, eta berriz indarrean jartzea hondakinak eremu horretan biltzeko zerbitzua.

Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

INTERPELAZIOA

1. Zergatik eten die Udal Gobernuak Artxipi eta Txurdiñene kaleetako bizilagunei hondakinak biltzeko zerbitzua? Noiz jarriko du berriz martxan?
2. Zergatik kobratu die Udal Gobernuak Artxipi eta Txurdiñene kaleetako bizilagunei eman gabeko zerbitzuarengatik? Noiz itzuliko dizkie bidegabeki kobratutako diru horiek?

Intervienen en este punto las Sras. Araneta Zinkunegi y Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

21.- Interpelación, presentada por el grupo EH BILDU, sobre la interrupción del servicio de recogida de residuos a los vecinos de la calle Artxipi.

El Sr. Etxeburua Urbizu da por leída la siguiente interpelación:

“Zigor Etxeburua Urbizu, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 134 del vigente Reglamento Orgánico del Pleno, tiene a bien presentar al alcalde, Eneko Goia Laso, la siguiente INTERPELACIÓN, relativa a la interrupción del servicio de recogida de residuos a las personas residentes en la calle Artxipi, para su tratamiento en la Comisión de Espacios Públicos.

JUSTIFICACIÓN

El pasado mes de enero los vecinos y vecinas de las calles Artxipi y Txurdiñene de Altza presentaron mediante registro un escrito relativo a la suspensión del servicio de recogida de residuos por parte del Ayuntamiento de Donostia. Así, señalan que en la primavera de 2021 les suspendieron este servicio, pero que desde entonces se les ha cobrado dos veces por un servicio que no se les ha prestado.

En consecuencia, solicitan que se les devuelvan las cantidades indebidamente cobradas y que se retome el servicio de recogida de residuos en esta zona.

Es por ello por lo que el concejal abajo firmante presenta la siguiente

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuál es el motivo por el que el Gobierno Municipal ha interrumpido el servicio de recogida de residuos a los vecinos y vecinas de las calles Artxipi y Txurdiñene de Altza? ¿Cuándo lo reimplantará?
2. ¿Cuál es el motivo por el que el Gobierno Municipal ha cobrado por un servicio no prestado a los vecinos y vecinas de las calles Artxipi y Txurdiñene? ¿Cuándo les devolverá las cantidades indebidamente cobradas?



Donostian, 2022ko apirilaren 1ean.

Zigor Etxeburua Urbizu
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”

(11:57an Aitzole Araneta bileratik atera da)

Zigor Etxeburuak eta Marisol Garmendiak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoa grabatu dira.

22.- Interpelazioa, EH BILDU Taldeak aurkeztua, Buenavista auzoan dagoen zikinkeriar buruzkoa.

Zigor Etxeburuak irakurritzat eman du interpelazio hau:

“Zigor Etxeburua Urbizuk, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egiten dio alkate Eneko Goia Lasori, Buenavista auzoan dagoen zikinkeriar buruzko azalpenak eman ditzan Gune Publikoen batzordean.

JUSTIFIKAZIOA

Buenavista auzoko bizilagunak kexu dira euren auzoa zikin dagoelako, txakurren pixez eta gorotzez beteta. Egoera hori ez da oraingoa, herritarrek iazko abuztuan jarri zituzten kexak Udalinfo zerbitzuan, baina Udal Gobernuak ez die erantzun egokirik eman herritarren eskakizunei.

Hain zuzen ere, herritarrek eskatu dute, garbitzeaz gain, zaintza indartzeko, eta behar izanez gero, zigortzeko bere txakurraren gorotzak biltzen ez dituen animalia jabea. Garbiketa zerbitzuarekin ere ez dira pozik ageri, aipatzen baitute ez duela eremu osoa garbitzen. Osasun zerbitzuek ontzat eman ezin duten egoera da hori.

Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

INTERPELAZIOA

1. Zergatik Udal Gobernuak ez die erantzun eraginkorrik eskaini oraindik Buenavistako bizilagunei?

Donostian, 2022ko apirilaren 1ean.

Zigor Etxeburua Urbizu
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”

(La Sra. Araneta Zinkunegi se retira de la sesión a las 11:57 h)

Intervienen en este punto el Sr. Etxeburua Urbizu y la Sra. Garmendia Beloqui en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

22.- Interpelación, presentada por el grupo EH BILDU, sobre la suciedad existente en el barrio de Buenavista.

El Sr. Etxeburua Urbizu da por leída la siguiente interpelación:

”Zigor Etxaburua Urbizu, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al alcalde, D. Eneko Goia Laso, relativa a la suciedad existente en el barrio de Buenavista, para su tratamiento en la Comisión de Servicios Públicos.

JUSTIFIKAZIOA

Vecinos del barrio de Buenavista se quejan de que su barrio está sucio, lleno de orinas y heces de perros. Esta situación no es la actual, sino que la ciudadanía interpuso quejas en el servicio Udalinfo el pasado mes de agosto, pero el Gobierno Municipal no ha dado respuesta sus demandas.

En concreto, la ciudadanía ha solicitado que, además de limpiar dicha suciedad, se refuerce la vigilancia y, en su caso, se sancione a la persona propietaria que no recoja las heces de su perro. Se muestran también insatisfechas con el servicio de limpieza ya que señalan que no se limpia toda la zona. Se trata de una situación inadmisibles por parte de los servicios sanitarios.

Es por ello por lo que el concejal abajo firmante presenta la siguiente

INTERPELACIÓN

1. ¿Por qué el Gobierno Municipal no ha ofrecido aún una respuesta eficaz a las vecinas y vecinos de Buenavista?



2. Zergatik Udal Gobernuak ez du egiten garbiketa eraginkorragoa Buenavistan?

3. Egin al du Udaltzaingoak kontrolik txakurren jabeek araudia bete dezaten?

Donostian, 2022ko apirilaren 1ean

Zigor Etxeburua Urbizu
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”

Marisol Garmendiak, Zigor Etxeburuak eta Miguel Angel Diezek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

(12:00tan Marisol Garmendia bileratik joan da)

(12:04tan Marta Huarte bilerara sartu da)

23.- Interpelazioa, EH BILDU taldeak eta Elkarrekin Donostia Taldeak aurkeztua, DBIZIri buruzkoa.

Marta Huartek eta Garbiñe Alkizak interpelazio hau azaldu dute:

“Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Marta Huarte Pañok eta EH Bildu udal taldeko zinegotzi Garbiñe Alkiza López de Samaniegok, Udaltzaren Organo Araudiaren 134. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta DBizi-ren gaineko INTERPELAZIO hau egin behar diote Mugikortasuneko zinegotzi eskuordedun Pilar Aranari, GUNE PUBLIKOEN BATZORDEAN (OBRAK ETA HIRI ZERBITZUAK) aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Martxoaren 22an argitaratu zen prentsan Dbizi-ren tarifek gora egingo zutela. Albiste horretan jartzen du Dbus-en garraio titulu guztiek igotze gabe segituko dutela, energiaren faktura handitu arren. Bestalde, albiste berean iragartzen da DBizi-ren zerbitzu publikoaren tarifetan doitzeko batzuk izango direla apirilaren 1etik aurrera.

Beraz, erabakiak ez dira Kontseiluan adostu, eta ez da Kontseiluan izan behar litzatekeen

2. ¿Por qué el Gobierno Municipal no hace una limpieza más efectiva en Buenavista?

3. ¿Ha realizado la Policía Local algún control para que las personas propietarias de perros cumplan la normativa?

En San Sebastián, a 1 de abril 2022

Zigor Etxeburua Urbizu
Concejal del grupo municipal EH Bildu”

Intervienen en este punto la Sra. Garmendia Beloqui, el Sr. Etxeburua Urbizu y el Sr. Díez Bustos, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

(La Sra. Garmendia Beloqui abandona la sesión a las 12:00 h)

(La Sra. Huarte Paño se incorpora a la sesión a las 12:04 h)

23.- Interpelación, presentada por los Grupos EH BILDU y Elkarrekin Donostia, relativa a DBIZI.

La Sra. Huarte Paño y la Sra. Alkiza López de Samaniego exponen la siguiente interpelación:

“Marta Huarte Paño, Concejala del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia y Garbiñe Alkiza López de Samaniego, concejala del Grupo Municipal EH Bildu al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presentan la siguiente INTERPELACIÓN a la Concejala delegada de Movilidad, Pilar Arana, para su tratamiento en la COMISIÓN DE ESPACIO PÚBLICO, OBRAS Y SERVICIOS URBANOS , relativa a DBizi.

JUSTIFICACIÓN

El 22 de marzo se publicó en prensa la noticia de que las tarifas de Dbizi iban a sufrir un incremento. En la noticia se dice que la empresa de transporte Dbus mantendrá en 2022 congelados todos sus títulos, pese al incremento de la factura energética. Por otro lado, en la misma noticia se anuncia que el servicio público de DBizi, realizará algunos reajustes en sus tarifas que estarán operativas a partir del 1 de abril.

Nos encontramos por tanto con que las decisiones no se han consensuado en el



eztabaidarik ere izan. Komunikabideen bidez igorri informazioa, eta kito. Eta, zoritxarrez, ez da hori gertatzen den aurreneko aldia.

Orain dela gutxi, OCUk egindako txosten bat argitaratu da, Estatuko hiri batzuetako bizikleta-bideen sareek zer egoera daukaten eta zer bilakaera izan duen esaten duena. Eta han jartzen du garestia dela Donostiako Dbizi zerbitzua.

Apirilaren 1etik aurrera izango diren tarifak hauek dira:

Aurtengo apirilaren 1etik aurrera egin nahi diren egokitzapenak nekez justifika daitezkeen igoerak dira.

Dbusak eta Mugikortasun sailak prezio horiek igotzeko eman duten arrazoibidea da handitu egin dela eskaera eta, beraz, prezioa ere handitu egin behar dela.

Guretzat, ordea, ez du balio argudio horrek, zeren Dbusak berak, bidaiari eskaria iazkoaren aldean % 27 igo ondoren, izoztuta ditu tarifak 2020az geroztik.

Beraz, inkongruentzia dago hor, eta ez dago tarifa igoera hori ulertzerik. Zerbitzua bermatu egin behar da eta herritar guztiek erabiltzeko modukoa izan behar du, mugikortasun-eredu jasangarri eta edozeinek erabiltzeko modukoan aurrera egingo badugu, eta, beraz, gure ustez, ezinbestekoa da egungo prezioei eustea, behintzat.

Bizikleta benetan garraio-bidea izatea nahi badugu, ibilgailu pribatuari aurre egingo diona, ezinbestekoa da sarea aldirietara zabaltzea eta bidegorri dentsitatea handitzea, erdialdeko auzoetara eta biztanle ugari eremu periferikoetara ere zabalduta. Horretan lan asko falta zaio oraindik ere Udal Gobernuari, ordea. Ekialdeko barrutian, konparazio baterako, Intxaurrendok izan ezik –une honetan bi geltoki bai baititu hark–, gainerako auzoek –eta Donostiako beste gune batzuek– ez daukate bizikletak alokatzeko udal-zerbitzu hori. Garbi dago oso estazio gutxi jarri direla aldirietako auzoak hiriko gainerako auzoekin lotu ahal izateko.

Esandako hori guztia ez dago tarifak igotzearekin uztartzerik, arriskuan jartzen da garraio-bide ekologiko horrek aurrera egiteko modua izatea eta kezkarria iruditzen zaigu bizikletaren

Consejo ni se procura el debate legítimo en el. La información se traslada a través de los medios de comunicación. Lamentablemente no es un hecho aislado .

En fecha reciente se publicó un informe de la OCU relativo a la situación y evolución de las redes para bicicletas en diferentes ciudades del Estado . En él se recogía el dato de que el servicio de Dbizi de la ciudad de Donostia era caro.

Las tarifas que se van a implantar a partir del 1 de abril del presente año son las siguientes:

Los reajustes que se pretenden a partir del día 1 de abril del presente año son subidas difícilmente justificables.

La argumentación de este aumento de precios por parte de Dbus y el departamento de movilidad ha sido que debido a una mayor demanda debe haber un aumento del precio.

Este argumento no lo consideramos válido ya que el propio Dbus, habiendo aumentado la demanda de viajeros en un 27% respecto al año pasado, ha congelado las tarifas desde el año 2020.

Por tanto hay una incongruencia y no se entiende esta subida en las tarifas. Se debe garantizar el servicio y que sea accesible a toda la ciudadanía para avanzar en un modelo de movilidad sostenible y accesible para cualquiera, por lo que consideramos imprescindible que al menos se mantengan los precios actuales.

Si queremos que de verdad la bicicleta sea un medio de transporte frente al vehículo privado, es imprescindible intensificar la extensión de la red a la periferia, y aumentar la densidad de bidegorris, cubriendo tanto los barrios céntricos como las áreas periféricas densamente pobladas. En este sentido, al Gobierno Municipal le queda mucho por hacer. En lo que respecta a Distrito Este , salvo Intxaurrendok que cuenta con dos estaciones en este momento, los demás barrios que lo conforman, al igual que otras zonas de Donostia, no disfrutan de este servicio municipal de alquiler de bicicletas. Es claramente insuficiente el número de paradas que se han dispuesto para conectar a los barrios de la periferia con el resto de la ciudad.

Todo lo dicho anteriormente es incompatible con la subida de las tarifas y pone en riesgo la progresión alcanzada de este medio de transporte ecológico y nos preocupa que esta



erabileraren progresio hori toki-administrazioaren bisio faltagatik etetea.

Gaur egun dugun egoera kontuan izanik, oraindik eta gehiago azpimarratu behar dugu bizikletaren eta beste mugikortasun jasangarri batzuen erabilera sustatu beharra. Eta garraio jasangarriaren erabilera sustatzea ez da premia bakarrik, aukera ere bada, adostasun handia baitago bizikleta garraiobide gisa aitortzen duena.

Hirian emisiorik eta zaratarik gabeko gune batzuk jartzeko diren planak eta ibilgailuak haietara sartzeko izango diren mugak kontuan hartuta, erritmoa aldatu eta bizikleta garraiobide jasangarritzat izatearen kultura hartzea sustatu behar du Donostiak.

Horiek horrela, hauxe da gure

INTERPELAZIOA

1- Zergatik ez die Dbizi-ren tarifei igo gabe eusten Udal Gobernuak?

2.- Zer arrazoi du Udal Gobernuak prezio horiek igotzeko?

3.- Igoera horrek Dbizi-ren zerbitzuari nola eragingo diola uste du?

4.- Noiz handituko du Udal Gobernuak Dbizi-ren zerbitzua?

5.- Zer inbertsio eta non egin behar du Dbizi-ren zerbitzuan hurrena Udal Gobernuak?

Donostian, 2022ko apirilaren 1ean

Marta Huarte Paño
Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia

Garbiñe Alkiza López de Samaniego
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”

Marta Huartek, Garbiñe Alkizak eta Pilar Aranak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

24.- Interpelazioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, bakarrik dauden errefusa-edukiontzia direla eta.

Garbiñe Alkizak irakurritzat eman du interpelazio

progresión en el uso de la bicicleta se interrumpa por una falta de visión de la administración local.

En los tiempos que vivimos, debemos insistir más si cabe, en la necesidad de potenciar en mayor medida el uso de la bicicleta y de otros medios de movilidad sostenibles. Potenciar el uso del transporte sostenible no es solo una necesidad, es una oportunidad, dado que existe un amplio consenso en reconocer la bicicleta como medio de transporte.

Teniendo en cuenta los actuales planes para la ciudad de establecer zonas libres de emisiones y ruidos y las limitaciones que supondrá en el acceso de vehículos, Donostia necesita cambiar de ritmo y fomentar la concienciación respecto a la cultura del uso de la bicicleta como medio de transporte sostenible.

Por lo expuesto presentamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1- ¿ Por que motivo el Gobierno Municipal no mantiene las tarifas correspondientes a Dbizi?

2.- ¿ Cual es la razón por la que el Gobierno Municipal ha incrementado los precios?

3.- ¿Como cree que afectara esta subida al servicio de Dbizi?

4.- ¿Cuándo va a aumentar el Gobierno Municipal el servicio de Dbizi?

5.- ¿Cuales y dónde van a realizarse esas nuevas inversiones en el servicio de Dbizi?

En San Sebastián, a 1 de abril de 2022

Marta Huarte Paño
Concejala del grupo municipal de Elkarrekin Donosti

Garbiñe Alkiza López de Samaniego
Concejala del grupo municipal EHBildu”

Intervienen en este punto las Sras. Huarte Paño, Alkiza López de Samaniego y Arana Pérez, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

24.- Interpelación, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre los contenedores de rechazo que están solos.

La Sra. Alkiza López de Samaniego da por leída



hau:

“Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egiten dio Ingurumeneko zinegotzi ordezkari Maria Soledad Garmendia andreaki bakarrik dauden errefusaren edukiontziei buruzkoa, hari buruzko azalpenak Gune Publikoen Batzordean eman ditzan.

JUSTIFIKAZIOA

Larrialdi klimatiko batean gaudela ezin dugu ahaztu, eta esan ohi den bezala, arazo globala izan arren erantzun lokalak behar ditugu. Erantzun horien artean lehentasuna da birziklapena, hondakinen kudeaketa. Azken urteetan Donostiako hiri hondakinen gaikako bilketaren emaitzak oso txarrak dira: Donostiako azkeneko datuen arabera, gaikako bilketa % 42,81 izan da. Beraz, argi dugu hondakinen kudeaketari bideratutako neurri gehiago hartu behar direla gure hirian.

Egokiena litzateke errefusaren edukiontzia txipdun txartelekin jartzea eta horrela edukiontzi horietara botatzen dena kontrolatzea, helburua errefusaren kopurua jaistea izanik. Maiz egin egin dugu eskaera hau, baina Udal Gobernuak ez du inoiz martxan jarri.

Hori egin ezean, eta Donostian dugun errefusa kopurua jaisteko, bestelako neurriak hartu behar dira. Hala nola, bakarrik dauden errefus edukiontzia kentzea, edo bestela, horiek dauden lekuan, birziklatzeko bestelako edukiontzia jartzea. Era honetan, herritarrei erraztasunak emango dizkiegu, dagokion hondakina dagokion edukiontzira botatzeko eta Donostiako gaikako bilketa kopurua igotzeko.

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

- Zer dela eta ez ditu Udal Gobernuak Donostiako kaleetan bakarrik dauden errefus edukiontzia erretiratu eta birziklatzeko edukiontziengatik ordezkatu?

- Ba al daki Udal Gobernuak zenbat errefus edukiontzi dauden isolatuta, bestelako birziklatzeko edukiontzirik gabe?

- Zenbat lekutan egin du Udal Gobernuak

la siguiente interpelación:

“Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente pregunta a la concejala delegada de Medio Ambiente, señora Marisol Garmendia Beloki, relativa a los contenedores de rechazo colocados de forma aislada, para que ofrezca las explicaciones pertinentes en el seno de la Comisión de Espacio Público.

JUSTIFICACIÓN

No podemos olvidar que estamos en una situación de emergencia climática y que, como se suele decir, a pesar de ser un problema global necesitamos respuestas locales. Entre ellas, la respuesta más prioritaria es el reciclaje, la gestión de residuos. En los últimos años, la recogida selectiva de residuos urbanos de San Sebastián ha arrojado unos resultados muy negativos: Según los últimos datos de San Sebastián, la recogida selectiva supone el 42,81 %. Por tanto, tenemos claro que hay que adoptar más medidas orientadas a la gestión de residuos en nuestra ciudad.

Lo ideal sería colocar contenedores de rechazo dotados de tarjetas con chip y así controlar lo que se deposita en ellos, con el objetivo de rebajar la cantidad de rechazo. Se trata de una solicitud que hemos presentado en numerosas ocasiones pero que el Gobierno municipal nunca ha puesto en marcha.

Si no es esta medida, es preciso adoptar otras que contribuyan a reducir el número de residuos de rechazo que tenemos en San Sebastián, como la retirada de contenedores únicos de rechazo o la instalación de otros contenedores de reciclaje en aquellos emplazamientos en los que haya solo un contenedor de rechazo. De esta forma, ofreceremos facilidades a la ciudadanía para que pueda depositar cada residuo en el contenedor correspondiente y poder incrementar así la recogida selectiva en San Sebastián.

Es por ello por lo que la concejala que suscribe presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

- ¿Por qué el Gobierno municipal no ha retirado los contenedores de rechazo colocados de manera aislada en las calles de San Sebastián? ¿Por qué no los ha sustituido por contenedores de reciclaje?

- ¿Sabe el Gobierno municipal cuántos contenedores de rechazo hay distribuidos de forma aislada, sin más contenedores de reciclaje?



edukiontzien taldekatzea?

- Zer asmo du Udal Gobernuak errefus ontzietan txipdun txartelak jartzeko hondakinen kudeaketa egoki bat egiteko eta gaikako bilketa handitzeko?

Noiz du lan hori egiteko asmoa?

Donostian, 2022ko apirilaren 1ean

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”

Miguel Angel Diezek eta Garbiñe Alkizak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

25.- Interpelazioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Gros auzoan egin behar dituzten errotazioko bi parkingak direla eta.

Garbiñe Alkizak irakurritzat eman du interpelazio hau:

“Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniegok, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egiten dio Garraioko eta Mugikortasuneko zinegotzi ordezkari Pilar Arana andreari, Donostiako erdigunean dauden parkingei buruzkoa, hari buruzko azalpenak Gune Publikoen batzordean eman ditzan.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiak, gaur egun, 35 parking ditu. Horietatik batzuk hiriaren erdigunean daude; hala nola, Alderdi Eder-Bulebar, Okendo, Kontxa, San Martin, Easo, Okendo, Katalunia Plaza edo Txofre parkingak. Grosen, zehazki, lurpeko hiru aparkaleku daude: Katalunia, Txofre eta Kursaal.

Parking hauek kontuan harturik, baieztatu dezakegu erdigunean bakarrik 3.000 plaza inguru daudela errotaziorako aparkalekuetan. Beraz, horrek egunerokoan autoen joan-etorri handi bat sortzen du, gure hiriko trafikoa zailduz eta egun borroka den CO2 murrizketari kontra eginez.

Gogorazi behar dugu Donostiako Udalak 2020an Larrialdi Klimatikoa adierazi zuela eta horri lotutako ekintza proposamena kaleratu zuela: mugikortasun jasangarria sustatzeko ekintzak barne. Horrez gain, Udal Gobernuak Datorren

- ¿En cuántos lugares ha llevado a cabo el Gobierno municipal la agrupación de contenedores?

- ¿Qué planes tiene el Gobierno municipal para colocar tarjetas con chip en los contenedores de rechazo para hacer una gestión adecuada de los residuos y aumentar la recogida selectiva?

¿Cuándo tiene previsto realizar este trabajo?

En San Sebastián, a 1 de abril 2022

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
concejala del grupo municipal de EH Bildu”

Intervienen en este punto el Sr. Díez Bustos y la Sra. Alkiza López de Samaniego, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

25.- Interpelación, presentada por el Grupo EH BILDU, relativa a los dos parkings de rotación que tienen que realizar en el barrio de Gros.

La Sra. Alkiza López de Samaniego da por leída la siguiente interpelación:

“Garbiñe Alkiza López de Samaniego, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta a la concejala delegada de Movilidad y Transportes, Pilar Arana, la siguiente INTERPELAZIÓN, relativa a los aparcamientos existentes en el centro de la ciudad, para su tratamiento en la Comisión de Espacios Públicos.

JUSTIFICACIÓN

Donostia cuenta en la actualidad con 35 parkings, algunos de los cuales se encuentran en el centro de la ciudad, como son, por ejemplo, el de Alderdi Eder-Bulebar, Okendo, La Concha, San Martín, Easo, Okendo, Plaza de Cataluña o Txofre; y en Gros, concretamente, existen tres aparcamientos subterráneos: Cataluña, Txofre y Kursaal.

Teniendo en cuenta estos aparcamientos, podemos afirmar que sólo en el centro existen unas 3.000 plazas de aparcamiento en rotación, lo que genera un gran tránsito de vehículos en el día a día, dificultando el tráfico de nuestra ciudad y la lucha por la reducción de emisiones de CO2.

Debemos recordar que el Ayuntamiento de Donostia declaró la Emergencia Climática en 2020, publicando, a su vez, un plan de acción en el que se incluyen acciones para promover la movilidad sostenible. Además, el Gobierno



Donostia proiektua martxan jarri berri du.

Ez hori bakarrik, eta martxoaren 29an Eusko Jaurlaritzak mugikortasun iraunkorra bultzatuko duen lege proiektua aurkeztu zuen. Bertan adierazten denez, udal bakoitzari aukera emango zaio herri eta hirien erdialdera ibilgailu motordun pribatuekin sartzea debekatzeko, edo tasak ezartzeko. Gainera garraio publikoa eta erregai jasagarriak sustatu nahi dira eta oinezko zein bizikletei lehentasuna eman. Horretarako, ibilgailu pribatuen erabilera eragozteko neurriak ezarriko ditu legeak: adierazi dutenez, legearen bitartez eskumen handiagoa emango zaie udalei lege berriarekin. Arriola sailburuak berak azaldu duenez, aparkaleku handiak ere egingo dira hirien kanpoaldean, eta gero bertatik erdialdera mugitzeko garraio publikoa erabili ahal izango da.

Hortaz, testuinguru honetan, eta argi izanik garraio pribatua dela karbono dioxido gehien isurtzen duena, ez dugu ulertzen eta ez zaigu batere egokia iruditzen Gros auzoan autoei sarbidea emango dien errotaziozko bi aparkaleku berri eraikitzea. Bata, Maria Inmaculada komentuarien orubean, Ategorrieta etorbidearen, Marino Tabuyo eta Jose Maria Soroaren artean; eta bestea, Basque Culinary Center-en bigarren egoitza eraikitzeko lurzatian.

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

- Zer dela eta erabaki du Udal Gobernuak, egungo egoeran, errotazioko beste bi aparkaleku eraikitzea Gros auzoan? Errotazioko zenbat auto sartu ahal izango dira parking berri hauetara?

- Zer iritzi du Udal Gobernuak egun Donostian dagoen errotazioko aparkaleku kopurua (3.000 plaza) handitzeaz? Aztertu al du Udal Gobernuak aparkaleku hauek gure hiriko mugikortasunean, CO2 emisioetan, espazio publikoaren banaketan, Groseko bizilagunengan... izango duen eragina?

- Uste al du Udal Gobernuak mugikortasuna hartzen ari den egungo norabidearekin (Larrialdi Klimatikoa, Datorren Donostia, mugikortasun iraunkorra bultzatuko duen lege proiektua...) bateragarria dela errotazioko bi aparkaleku berri eraikitzea?

- Zer dela eta ez du Udal Gobernuak errotazioko parkinga ez den bestelako erabilerarik planteatu leku hauetan? Asmoa al du beste erabilerarik iragartzeko?

Municipal acaba de poner en marcha el proyecto Datorren Donostia.

No sólo eso, sino que el 29 de marzo el Gobierno Vasco presentó el proyecto de ley para el impulso de la movilidad sostenible, en el que se establece que cada ayuntamiento podrá prohibir o establecer una serie de tasas para el acceso en vehículos de motor privados al centro de los pueblos y ciudades. Asimismo, pretende fomentar el transporte público y los combustibles sostenibles, priorizando a peatones y a ciclistas. A tal fin, la ley establecerá medidas para impedir el uso de vehículos privados. Y también se ha señalado que con la nueva ley los municipios contarán con mayores competencias. El propio consejero Arriola ha explicado que se construirán grandes aparcamientos disuasorios conectados mediante transporte público con el centro.

Por lo tanto, en este contexto, y teniendo claro que el transporte privado es el principal emisor de dióxido de carbono, no se entiende, ni se considera oportuno, construir dos nuevos aparcamientos de rotación que den acceso a los vehículos en el barrio de Gros: uno en el solar del convento de María Inmaculada (entre la avenida de Ategorrieta, Marino Tabuyo y Jose Maria Soroa) y el otro en la parcela donde se construirá la segunda sede del Basque Culinary Center.

Es por ello por lo que la concejala que suscribe presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

- ¿Cuál es la razón por la que el Gobierno Municipal ha decidido, en la situación actual, construir dos nuevos aparcamientos de rotación en el barrio de Gros? ¿Cuántos vehículos podrán acceder a las plazas de rotación de estos nuevos aparcamientos?

- ¿Qué opinión le merece al Gobierno Municipal el incremento del número de plazas de aparcamientos en rotación actualmente existente en Donostia (3.000)? ¿Ha analizado el Gobierno Municipal el impacto de estos aparcamientos en la movilidad de nuestra ciudad, en las emisiones de CO2, en la distribución del espacio público, en los vecinos de Gros, etc.?

